

Gure proiektua abian jartzeko beste elkarteekin elkarlanean aritzea beharrezkoa izango da; gure bezeroak bereganatzeko funtsezko tresna izango baitira. Hori dela eta, gure proiektua martxan jartzeko beharrezkoak diren elkarteak beheko kuadroan zerrendaturik daude.

Hasteko, Durangaldeko eskolak izango dira. Kontuan izanik gure elkartean parte hartuko duten kideen adina 12 eta 20 urte bitartekoak izango direla, adin tarte horretako ikaskuntza zentruarekin harremanetan jarriko gara.

Funtsezko elkarteekin jarraituz, Durangaldean Aniztasun Funtzionalen bat duten pertsonekin aritzen diren elkarteak ere kontuan izan behar ditugu. Gure proiektuan aniztasun funtzionala duten pertsonak parte hartzea ezinbestekoa izango da, beraz, elkarte hauen bitartez pertsona hauekin topo egin eta erakarri ahalko ditugu.

Azkenik, funtsezko elkarte bezala Udako aisialdi taldeak izango ditugu baita ere, arlo honetan lanean ibiltzen baitira eta bezero ugari eskaini ahal izango dizkigutelako.

Elkarte mota	Izena	Harremana
Eskolak	<ul style="list-style-type: none"> ● <i>Durangon:</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ IES Fray Juan De Zumarraga ○ San Antonio Santa Rita ○ San Jose Jesuitak Ikastetxea ○ Nevers ○ Maristak Ikastetxea ○ Ibaizabal Ikastola ○ Kurutziaga Ikastola ● <i>Iurretan:</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ Iurretako Institutua ● <i>Abadiñon:</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ Abadiñoko Institutua ● <i>Elorrion:</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ Lourdesko Ama Eskola ○ Txintxirri Ikastola ○ Elorrioko Institutua 	<p>Eskolen bidez bezeroak lortuko ditugu. Hau da, eskoletan gure elkartearen inguruko hitzaldiak emango ditugu. Hitzaldiak eman eta gero, gure elkartearen eskuorri banatuko ditugu.</p> <p>Horiekin izango dugun harremana zuzena eta hurbila izango da.</p>

	<ul style="list-style-type: none"> ● <i>Amorebieta-Etxanon:</i> <ul style="list-style-type: none"> ○ Andra Mari Ikastola ○ Karmelo Eskola 	
Aniztasun funtzionalarekin lan egiten duten elkarteak	<ul style="list-style-type: none"> ● Geube ● Gorabide ● AIDAE 	Hauen bidez ere bezeroak lortuko ditugu eta gure proiektua azalduko diegu. Hitzaldia eman eta gero eskuorri batzuk banatuko dizkiegu.
Aisialdi taldeak	<ul style="list-style-type: none"> ● Berbaro Elkartea ● Intxorta Asti Aisialdi taldea ● Kimuak Aisialdi taldea ● Gazte Txokoa 	Aisialdi taldeei begira, elkarlana proposatuko diegu eta, aldi berean, gure proiektua sendotzeko eta haiekin sareak sortzeko tresna bat izango da.